

<b>Kidegoa: MAISU-MAISTRAK</b>	<b>Espezialitatea: ATZERRIKO HIZKUNTZA INGELESA</b>	<b>Hizkuntza: EUSKARA</b>
<b>BALORAZIO IRIZPIDEAK</b>		<b>Gehieneko puntuazioak / murrizketa</b>
<p>Baldintza formalak betetzen ez baditu:  Programazio didaktikoak gehienez ere 50 orrialde zenbakitu izanen ditu, DIN-A4 formatuan, lerroarte arruntarekin, 12 puntuko Arial letra erabiliz, konprimatu gabe. Grafika eta tauletan 10 puntuko Arial letra erabiltzen ahalko da. Argazki-oinetan, orri-oinetan eta goiburuan Arial ez den beste letra mota bat eta aipatutakoak baino neurri txikiagoak erabiltzen ahalko dira. Azalaren diseinua libre da, baina nahitaez jasoko dira izangaiaren izena, abizenak eta NAN zenbakia edo identifikazio agiria. Programazioak gutxienez 10 unitate didaktiko zenbakidun eduki beharko ditu. Programazio didaktikoaren azala, kontrazala eta aurkibidea ez dira zenbatuko 50 orrialde horien barruan. Izangaiak bere borondatez eranskinak edo material lagungarriak gehitzen baditu, ulertuko da baimendutako orri kopuruaren barruan daudela, eta horiek ere aipatutako ezaugarri teknikoak bete beharko dituzte.</p>		Probaren A zatiaren balioaren % 50eko murrizketa
<b>Gaiaren antolaketa</b>		<b>2 puntu</b>
Programazioaren sarrera eta justifikazioa egitea eta Nafarroako Foru Komunitatean indarrean dagoen curriculumaren araberrako testuingurua ematea.		1 puntu
Ongi planteatuta daude programazioa osatzen duten elementuak, atalen koherentzia eta proposatzen duen sekuentziazioaren logika.		1 puntu
<b>Eduki teknikoak:</b>		<b>2 puntu</b>
<p>Programazioak curriculum elementuak zehazten ditu, mailaren arabera.  Programazioak honakoak zehazten ditu: helburuak, edukiak, ebaluazio irizpideak eta adierazleak, metodologia, baliabide didaktikoak, etengabeko ebaluaziorako prozedurak eta tresnak, oinarrizko gaitasunak – zeharkakoak zein diziplina barrukoak– eskuratzeko laguntza, bai eta aniztasunari erantzuteko neurriak ere, arreta berezia jarritz hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleen kasuan. Lehen Hezkuntzaren kasuan, programazioak ikaskuntzaren estandarrak ere zehazten ditu, bai gako-gaitasunak eskuratzeari dagokionez, bai helburuak lortzeari dagokionez.</p>		2 puntu
<b>Eduki didaktikoak:</b>		<b>6 puntu</b>
Ikasurterako egokiak diren metodologia, materialak eta baliabide didaktikoak.		1,8 puntu
Prozedurak, lanabesak, tresnak eta ebaluazioari lotutako bestelako alderdiak zehaztea, Nafarroako Foru Komunitatean ebaluazioaren arloan indarrean den araudiari jarraituz.		1,8 puntu
Aniztasunari erantzuteko neurria koherente eta egokiak erabiltzen ditu, arreta berezia jarritz hezkuntza laguntzako premia berariazkoak dituzten ikasleentzako neurriak.		1,8 puntu
Programazioa modu argian azaltzea.		0,6 puntu
<b>Zuzentasun ortografikoa (murrizketa)</b>		<b>2 puntu</b>
Ortografia akatsak		1 puntu
Gramatika akatsak		1 puntu
<p>Programazio didaktikoa izangaiak egin behar duenez, eta horrek lan pertsonala eta indibiduala eskatzen duenez, programazio plagiatuak aurkezteak edo izangai batzuek programazio didaktiko bera aurkezteak esan nahi du hori egiten duten izangaiak zero puntuko kalifikazioa lortu behar dutela probaren zati honetan.</p>		